



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

OSASUN ZIENTZIAK

**Auzo osasungarriak lortzen:
Herritarren beharrianetan
oinarritutako gomendioak eta
politika publikoen ebaluazioa**

*Ainara San-Juan-Escudero,
Amets Jauregi,
Silvia Caballero-Sánchez
eta Leyre Gravina*

89-96 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.04.10>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LAGUNTZAILEAK



Auzo osasungarriak lortzen: Herritarren beharrianetan oinarritutako gomendioak eta politika publikoen ebaluazioa

Ainara San-Juan-Escudero^{1,2}, Amets Jauregi¹, Silvia Caballero-Sánchez^{1,2}, Leyre Gravina^{1,2}

(1) *Erizaintza eta Osasun Sustapenerako Ikerketa Taldea, Erizaintza I Saila, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa, Bizkaia*

(2) *Biobizkaia Osasun Ikerketa Institutua, Barakaldo, Bizkaia*
ainara.sanjuan@ehu.eus

Laburpena

Ikerketa honek elikadura-ingurunea hobetzeko herritarren partaidetzak duen eragina aztertzen du Photovoice teknikaren bidez. Emaizak erakusten dute politika publikoetan herritarrek proposatutako gomendioen erdiak bete zirela, baina betetzea aldakorra izan zen. Ingurune fisikoari lotutako ekintzak izan ziren gutxien gauzatutakoak; eta, berriz, politika publikoetan gehien jorratutakoak, bizimoduekin eta baldintza ekonomikoei lotutakoak. Honek nabarmentzen du, tokiko beharrak asetzeko eta politika publikoak epe luzera eraginkorrak izateko, diziplina anitzeko ikuspegiaren garrantzia, eta herritarren, agintarien eta osasun-profesionalen arteko lankidetzaren beharra.

Hitz gakoak: *Photovoice*, hiri osasuna, hiri-ingurunea, elikadura-ingurunea, parte-hartzea, herritar-gomendioak, politika publikoak.

Abstract

This study examines the impact of citizen participation through the Photovoice technique in improving the urban food environment. Results show that half of citizen recommendations were fulfilled in public policies, but compliance varied according to different factors. Actions related to the physical environment were the least implemented, while those addressing lifestyles and economic conditions were most addressed by public policies. This highlights the need for a multidisciplinary approach and continued collaboration between citizens, local authorities and health professionals to ensure that local needs are met and that public policies are effective in the long term.

Keywords: Photovoice, urban health, urban environment, food environment, participation, citizen recommendations, public policies.

1. Sarrera eta motibazioa

Pasa den mendeko aldaketa demografiko esanguratsuenetako bat hirien urbanizazioa izan da, zeinak munduko biztanleriaren bizimodua eraldatu duen, eta hiri-osasunak garrantzia hartu du hiri-ingurunearen ezaugarriek pertsonen osasunean izan dezakeen eragina aztertzen (Wuerzer, 2014). Hala, elikadura-ingurunea da erlazio horren funtsezko faktoreetariko bat, era honetara hartuta "kontsumitzaileak elikagaiak erosteko, prestatzeko eta kontsumitzeko erabakiak hartzeko elikagai-sistemeekin elkarreragiten duten testuinguru fisiko, ekonomiko, politiko eta soziokulturala" (EU Food Policy Coalition, 2021). Horrek elikagaien eskuragarritasuna, erabilgarritasuna eta dieta ereduak zehazten ditu. Aurretiazko ikerketek frogatu dute egoera sozioekonomikoa osasunari oso lotuta dagoela, batez ere elikadura-segurtasun ezari eta obesitateari dagokienez (van Diepen et al., 2023). Gainera, hirien urbanizazioak elikagai ultraprozesatuen eskuragarritasuna erraztu eta janari lasterraren publizitate masiboa areagotu du (Jackson et al., 2020); horiek elikadura ohituretan eragina izan dute, eta ondorioz, osasun-arazoen areagotzea ekarri dute. Guzti honek azpimarratzen du biztanleriaren osasuna hobetu nahi bada elikadura-inguruko egitura-determinatzaileei aurre egiteko premia (Bilal et al., 2018).

Gizarte aldaketa iraunkorrak lortzeko elikadura-ingurunea aldatzera bideratu beharko lirateke esku-hartzeak, jokabide indibidualak aldatzera baino gehiago (Brambila-Macias et al., 2011). Era orokorrean frogatu da osasuna hobetzeko eraginkorrak izan diren hainbat estrategia: elikagai osasuntsuen eskuragarritasuna areagotzea, publizitatea kontrolatzea, prezioak erregulatzea, eta etiketak erabiltzea (Bivoltsis et al., 2018). Hala ere, egitura-aldaketek benetako

eragina izan dezaten, ezinbestekoak dira elikadura jokabide osasuntsuei buruzko heziketa sustatzen duten politikak (Franco et al., 2015), komunitateak ulertu eta barneratzea ziurtatzeko.

Aipatutako guztiagatik, ezinbestekoa da ikertzea elikadura-inguruneek eta politika publikoek nola lagun dezaketen elikadura osasuntsua jarraitzen eta biztanleriaren osasuna hobetzen. Testuinguru honetan, funtsezkoa da biztanleriaren pertzepzio eta beharrak ikuspegi parte-hartzaileen bidez ulertzea, bai tokiko elikadura-ingurunea hobetzeko estrategia eraginkorrakoak diseinatzeko, baita politika publikoetan duten eragina ebaluatzeko ere.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Elikadura-inguruneei buruzko ikerketek garrantzi handia hartu dute azken urteotan, batez ere osasunaren gizarte-determinatzaileen azterketa. Tokiko inguruneak komunitate baten elikaduran nabarmen eragin dezake, elikagaien irisgarritasunari eta kalitateari dagokionez (Fernández-Escobar et al., 2023). Dena den, eragin hori ez da homogeneoa eta testuinguru sozio-ekonomikoaren arabera aldatzen da, eta hiri-eremuetan elikagai osasuntsuen eskuragarritasun desberdintasunak nabariak dira (van Diepen et al., 2023). Zentzu honetan, bizilagunen ohituretan zeresan erabakigarria dute urbanizazioak eta auzoen egitura sozioekonomikoak. Horregatik, onuragarria izango litzateke ulertzea hiri bateko elikadura-inguruneak elikadura osasuntsuaren sustapenean nola eragin dezakeen; erlazio horretan eragina duten faktore fisiko, ekonomiko, politiko edo/eta soziokulturalak aurre egin ahal izateko (Alidoost et al., 2021).

Hori lortzeko, ikuspegi parte-hartzaileak funtsezko tresna bihurtu dira komunitateak berak elikadura-ingurunean dauden beharrak eta kezkak identifikatzeko (San Juan et al., 2023). *Photovoice* teknikak garrantzia hartu du herritarrei hitza emateko eta haien auzoari buruzko kezkak adierazteko tresna eraginkor gisa (Lofton eta Grant, 2021). Gainera, partaidetza metodoek elikadura-ohitura osasuntsuak sustatzeko irtenbide inklusiboa eta eraginkorrak identifikatzen lagun dezakete. Modu horretan, ongizatean eragiten duten politika publikoen formulazioan herritarren partaidetza aktiboaren garrantzia bermatzen da (Díez et al., 2018).

Ikerketa honen helburu nagusia partaidetza prozesu baten bitartez herritarren parte-hartzeak gizartearen duen eragina ebaluatzea da, auzo mailan elikadura-ingurunea hobetzeko tokiko politika publikoen formulazio eta ezarpenean. Horretarako, honako helburuak proposatzen dira:

- 1) Elikadura-inguruneari dagokionez, auzoko bizilagunen beharrak eta kezkak identifikatzea eta dokumentatzea.
- 2) *Photovoice* prozesu parte-hartzaile baten bidez lortutako herritarren gomendioak tokiko politika publikoekin alderatzea.

3. Ikerketaren muina

3.1 Diseinua eta parte-hartzaileak

Ikerketa hau 2017an Bilboko hiru auzotan egindako *Photovoice* proiektu batean oinarritzen da. Hiritarren, profesional akademikoaren eta osasun-profesionalen elkarlanari esker, hiriko elikadura-inguruneari lotutako erraztasunak eta oztopoak identifikatu ziren (Gravina et al., 2020). Honakoan Uribarriko emaitzak aurkezten dira. Langile-auzo gisa sortu zen industria garaian, eta auzoaren itxura aldatu arren, nortasun sendoa mantendu du. Egun, hirigunetik hurbil egoteak eta bertako lasaitasunak erakarrita, jende berria etorri, eta betiko bizilagun zahartuekin batera, aniztasuna areagotu da. Gainera, elkarte-sare aktibo batek dinamismoa sustatzen du. Testuinguru horrek auzo aproposa bihurtzen du *Photovoice* ikerketaaren eragina aztertzeko.

Parte-hartzaileak lortzeko berariazko laginketa-estrategia erabili zen (Patton, 2002), barne-irizpide hauen arabera: adin nagusikoa izatea, auzoan gutxienez bost urtez bizi izana, gaztelaniaz hitz egitea, kamera edo *smartphone*-a erabiltzeko gaitasuna, eta bost saioretan parte hartzeko konpromisoa hartzea. Auzokideak erakartzeko informazio orriak banatu, auzo-elkarteekin harremanak landu, eta aurkezpen laburrak egin ziren. Wang-en proposamenei

jarraituz (1999), zazpi eta hamar partaide arteko taldea sortu zen. *Photovoice* taldeak heterogeneo eta dinamikoa izan behar du, ikuspegi-aniztasuna eta elkarrizketa aberastasuna sustatzeko (Conde et al., 2024). Laginaren tamainak eta testuinguruaren berariazkotasunak emaitzen orokortzea mugatu dezakeen arren, nahikoak dira auzoko ikuspuntuak aztertzeo eta elikadura-ingurunearen faktoreak identifikatzeko. Partaideek informazio-orriak jaso eta baimen informatua zein irudi-eskubiden orriak bete zituzten. Ikerketa hau Helsinkiko dekretuaren arabera egin zen, eta Basurto Hospitaleko Ikerketa Klinikoko Etika Batzordeak onetsi zuen.

3.2 Prozedura

Ikerketa honek *Community Based Participatory Research* metodologiari jarraitzen dio, non komunitateak ikerketa-prozesuan aktiboki laguntzen duen: ezagutzak eta esperientziak partekatuz, eta osasunaren gizarte-determinatzaileei hellduz eta gaitasunak garatuz (Israel et al., 2019). *Participatory Action Research* metodologiarekin batera, ezagutza herrikoi hori partekatuak izango diren emaitzetan eraldatzen da, eta tokiko beharretara egokitutako konponbideak sortzeko ekintza-gaitasuna sustatzen da (Burns et al., 2022). Horrela, *Photovoice* teknikak parte-hartzaileei argazkigintza erabiliz aukera ematen die haien inguruneko ikuspuntuak, kezkak eta beharrak adierazteko. Irudien bidez hausnartu eta talde-eztabaidetan gai horien garapena uztartzen da (Wang et al., 1997; Wang, 1999). Partaideek bost saiotan zehar elikadura-ingurunea aztertu zuten: 1) Ikerketaren berri jaso, 2) Haiek ateratako argazkiak aurkeztu, 3) Analisi positiboa, 4) Analisi negatiboa, 5) Identifikatutako ideiak mapa kontzeptual batean laburtu, eta auzoko elikadura-ingurunea hobetzeko gomendioak eta ekintzak proposatu. Horrela, partaideek haien errealitateak dokumentatzea eta gizarte-ekintza bultzatzen dira, eta gainera, herritarren eta arduradun politikoen arteko komunikazioa indartu ere.

3.3 Analisi kualitatiboa

3.3.1 Herritarren gomendioak identifikatzea

Abiapuntu gisa, *Photovoice* taldeko partaideek haien auzoko elikadura-ingurunearen indarguneei eta ahuleziei buruzko argazkiak atera eta eztabaidatu zituzten. Hausnarketa-prozesuaren ondoren, beren ideiak gomendio eta hobekuntza-ekintza bihurtu zituzten.

Analisi horretan oinarrituta eta azterketa tematikoaren bidez, ikerketa-taldeak partaideen iradokizunak herritarren gomendioen txosten batean bildu zituen. Segidako hurbilketaren eta afinitate-diagramen estrategia analitiko deduktiboa erabili zen, herritarren gomendioak ideia komunengatik inguruan modu intuitiboan biltzeko (Harrington eta Voehl, 2016). Horri esker, elikadura-ingurunearen funtsezko dimentsioetan kontzeptualizatu eta taldekatu ziren.

Txostenaren zirriborroa partaideekin partekatua eta adostua zen, sinesgarritasuna eta adostasuna bermatzeko (Bugos et al., 2014). Ondoren, Bilboko Udaleko, Eusko Jaurlaritzako eta Osakidetza ordezkariei aurkeztu zitzaion 2017 urte amaieran, partaidetza jardunaldi batean.

3.3.2 Indarrean dauden politikekin alderatzea

Politika publikoen berrikuspena egiteko analisi-dokumental izeneko teknika erabili zen, dokumentu formalean dagoen informazioa aztertzeo. Horrela, modu objektibo, eskuragarri eta formatu egonkor batean interpretatu daitezke ebaluatu beharreko politikak (Sanz, 2011).

Kasu honetan, Bilboko Udalaren I. Osasun Plana (2019-2023) hartu zen administrazio-dokumentu ofizialtzat (Bilboko Udala, 2019). Dokumentu honek Bilboko Udalaren osasun-politikarako erreferentziazko esparru estrategikoa definitzen du, eta herritarren osasuna hobetzeko eta osasun-arloko desberdintasun sozialak murrizteko helburua du. Zehazki, Udalak modu pribatuan emanda, dokumentu horren 2021eko Jarraipen Txostena kontuan hartu zen,

Fase honen helburua *Photovoice* teknikaren bidez lortutako herritarren gomendioekin bat zetozen politika publikoak identifikatzea zen. Horretarako, xehetasunez irakurri ziren argitaratutako politika publikoak: haien helburuak, garapena, aldaketak eta ezarpena ulertuz; eta proiektuko parte-hartzaileek herritarren gomendioetan deskribatutako beharrek alderatu ziren.

Ondoren, edukien azterketa konparatiboa egin zen, partaidetza-gomendioak eta hobekuntza-ekintzak bilduz, eta politika publikoekin alderatuz. Kolorezko sistema erabili zen: berdea (erabat betetzen da), laranja (partzialki betetzen da), eta gorria (ez da betetzen / ez da argetzen).

3.3.3 Inpaktuaren ebaluazioa

Azkenik, proiektuko parte-hartzaileek gomendioen bidez adierazitako lehentasunak eta beharrak politika publikoek betetzen ote zituzten ebaluatu zen. Ebaluazioa egiteko, herritarren gomendioak eta hobekuntza-ekintzak kuantifikatu ziren: gaiaren arabera eta kolore-legendaren arabera zenbatu ziren. Informazioa zenbakitan eta ehunekotan bildu, eta zehaztu zen Bilboko Udalaren politika publikoek herritarren zenbat gomendiori eta ekintzari erantzun zieten.

3.4 Emaitzak

Uribarriko elikadura-ingurunea aztertzeke zortzi parte-hartzaile izan ziren, lau gizonezko eta lau emakumezko, horietako bat atzerritarra. %62,5ek unibertsitate ikasketak zituen, %62,5 lanean ari zen, %12,5 langabezian zegoen eta %25 erretiratuta. Familiaren diru-sarrerei dagokienez, erdiak hilean 2000€ baino gehiago irabazten zuen, laurdenak 1200-2000€ bitartean, eta besteak 600€ baino gutxiago. Ikusten denez, laginak aniztasun sozioekonomikoa izan zuen.

3.4.1. Elikadura-ingurunea hobetzeko herritarren gomendioak

Parte-hartzearen azterketatik abiatuta, elikaga-ingurunea hobetzeko sei gomendio (G) eta 15 ekintza (E) identifikatu ziren. Azterketa tematikoaren ondoren, osasuna baldintzatzen duten faktoreen arabera multzokatu ziren: baldintza ekonomikoak, bizimoduak, eta ingurune fisikoak.

Baldintza ekonomikoei buruzko gomendioak hauek izan ziren: G1. Merkatu tradizionala eta merkataritza txikia suspertzea eta sustatzea, eta G2. Komunitatearen elikadura-beharren estaldura ziurtatzea. Honakoak bizimoduekin lotutakoak: G3. Elikagai-hezkuntza sustatzea, eta G4. Elikagai ekologikoen eta 0 kilometroaren eskaintza eta kontsumoa sustatzea. Ingurune fisikoari buruzko gomendioak hurrengoak ziren: G5. Elikagaien kalitatearen osasun-kontrol handiagoa, eta G6. Jolas-eremuen sorrera edo egokitzapena. 1. taulan herritarrek proposatutako gomendio horiei lotutako hobekuntza-ekintzak aurkezten dira, gaika sailkatuta.

3.4.2 Politika publikoen eta herritarren gomendioen arteko alderaketa

Indarrean dauden politika publikoen helburuak eta planteamendua ulertzeko, Bilboko Udalaren I. Osasun Planaren (2019-2023) 144 orrialdeak eta 2021eko Jarraipen Txostenaren 90 orrialdeak berrikusi ziren, eta herritar gomendio eta ekintzekin lotutako politikak identifikatu. Herritarrek proposaturiko gomendioak eta ekintzak beteak (berdea), bete gabeak (gorria) edo partzialki beteak (laranja) bezala markatu ziren. Kasu batzuetan, askotaruko arrazoiengatik, politikak aurreikusita bazeuden ere, ez ziren gauzatu, eta beraz, ekintzak gauzatzat edo egin gabekotzat markatu ziren. Gaiaren arabera konparazio-emaizak 1. taulan ere jaso dira.

3.4.3 Herritarren gomendioen betetzea

Inpaktuaren edo betetze-mailaren ebaluazioak erakutsi zuen herritarren sei gomendioetatik %50 garatu zela, eta beste erdia partzialki inplementatu zela. 15 ekintza espezifikokoak aztertzean, %53 gauzatua izan zirela eta %47 egiteke geratu zela ikusi zen.

Dimentsioen arabera aztertuta, baldintza ekonomikoei lotutakoek betetze-maila handiagoa izan zuten: gomendioen %50 gauzatu zen, beste erdia partzialki gauzatua; eta ekintzen %60 ere gauzatu izan zen. Bizimoduei dagozkien gomendioetan, %50 erabat exekutatu zen, beste erdia partzialki; eta ekintzen %57 bete zen, gainerakoak ez. Aitzitik, ingurune fisikoari lotutako proposamenek (gomendioen %50 beteak eta beste erdia partzialki) ekintzen betetze-maila txikiagoa izan zela erakutsi zuten, ekintzen %67 ez baitzen bete.

Emaizak faktoreen arabera aldeak islatzen dizuzte. Guztietan, gomendioen erdiak beteak eta beste erdiak partzialki beteak izan arren, ekintzen betetze-maila desberdina izan zen gaiaren arabera. Baldintza ekonomikoek betetze handiena izan zuten, eta ingurune fisikoari buruzkoek, berriz, betetze-eza handiena. Ekintzen inplementazioan ere aldeak nabarmendu ziren.

1. taula. Herritarren gomendioak eta ekintzak vs. Udalaren I. Osasun Planaren politika publikoak.

GAIAK, GOMENDIOAK ETA EKINTZAK			OSASUN POLITIKAK
B. EKONOMIKOAK	G1	✖ E1. Auzoko saltokiak ezagutzeko ibilbideak egitea ✓ E2. Auzoko bizitzan parte-hartzea sustatzea ✖ E3. Alokairuak edo lokal merkeak sustatzea	✓ 3.1.59 Tokiko eta hurbileko merkataritza sustatzea, baita udal-merkatuak ere, bereziki elikadura osasungarria eskuratzeko aukera ematen dutenak eta osasun-aktibo gisa duten garrantziari buruzko sentsibilizazioa eskaintzen dutenak.
	G2	✓ E4. Ikasleentzako otorduak eskaintzea ✓ E5. Elikagaiak eskeintzeko gizarte-zentroak sortzea	✓ 2.1.13 Haurren babesgabetasun-egoeren eta osasunerako arriskutsuak diren egoeren detekzioa sustatzea. ✓ 2.1.14 Oporraldian haurrei zuzendutako jarduera osasungarriak sustatzea. ✓ 2.6.2 Familia- edo gizarte-laguntzako sarrerik ez duten adinekoen osasuna eta ongizatea sustatzea. ✓ 4.1.1 Oinarrizko beharren betetzea sustatzea, Larrialdi eta Gizarte Larrialdietako Programa hedatuz. ✓ 4.1.2 Gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzea, ohiko edo ez-ohiko gastu espezifikoak ordaindiz. ✓ 4.1.4 Baliabide ekonomiko nahikorik ez duten familiei laguntzeko jarduerak.
BIZIMODUAK	G3	✓ E6. Txikitatik ikastetxeetan irakasgaiak izatea ✓ E7. Herritarrak kontzientziatzeko bilerak ✓ E8. Elkarrekin parte-hartzea auzoan sustatzea ✓ E9. "Kontsumo-eskolen" sorpena sustatzea	✓ 2.1.1 Eskoletan osasun-estrategiak sustatzea. ✓ 2.1.3 Haurren artean elikadura osasungarria sustatzea. ✓ 2.1.9 Ikasleengan kontsumo arduratsu, iraunkor eta solidarioko hezkuntza-jarraitibideak sustatzea. ✓ 2.2.1 Nerabeen artean elikadura osasuntsua sustatzea. ✓ 2.2.11 Nerabeen artean kontsumo arduratsu, iraunkor eta solidarioko hezkuntza-jarraitibideak sustatzea. ✖ 2.4.1 Helduen artean jokabide osasuntsuak sustatzea, prestakuntza-jarduerak garatuz. ✓ 2.5.1 Adinekoen autozaintza eta jokabide osasuntsuak sustatzea. ✓ 3.3.6 Kontsumo-taldeen eta hurbileko produktuen kontsumo-elkarrekin lotutako ekimenak sustatzea. ✓ 5.2.3 Auzoetan ekintza komunitarioa sustatzea eta baliabide material, fisiko eta teknikoak eskeintzea. ✓ 5.2.4 Auzokideen eta elkarrekin lan egiten duten profesionalen arteko sare-jarduerak sustatzea.
	G4	✖ E10. Auzo-komunitateari dauden kontsumo-kooperatibei buruzko informazioa helaraztea ✖ E11. Nekazarietako laguntzak ✖ E12. Lehen sektorearen eta tokiko saltokien artean harremanak ezartzea	✓ 3.1.32 Udal-baratze ekologikoen ekimenak sustatzea eta osasunaren gaineko potentziala handitu. ✓ 3.2.8 Lurraldean dauden eragileen edo ekimenen izaera komunitarioa edo ekintza komunitarioarekiko lotura sustatzea, hala nola udal-baratze ekologikoak. ✓ 3.3.6 Kontsumo-taldeen eta hurbileko produktuen kontsumo-elkarrekin lotutako ekimenak bultzatzea eta sustatzea.
INGURU FISIKOA	G5	✓ E13. Establezimenduetan osasun-kontrola egiteko udal-zerbitzuak aktibatzea	✓ 3.1.36 Establezimendu eta instalazioen higiene- eta osasun-baldintzak kontrolatzeko jarduerak garatzea. ✓ 3.1.53 Elikadura-ingurune segurua eta osasungarria sustatzea. ✖ 3.1.54 Ekitate-irizpideak elikagaien eta giza kontsumorako uraren higiene- eta osasun-kontrol eta -zaintzako jardueretan txertatzea. ✓ 3.1.55 Elikagaien segurtasuna sustatzea, laguntza eta sentsibilizazio jardueren bidez.
	G6	✖ E14. Haurrentzako jolas-eremuak egokitzea ✖ E15. Adineko pertsonentzako jolas-eremuak egokitzea	✓ 3.1.6 Auzokide Planean osasunaren ikuspegia txertatzea: Uribarriko goiko aldeko irisgarritasun-plana.

3.5 Eztabaida

Lan honek lehen aldiz erakutsi du *Photovoice* teknikarekin herritarren behar eta gomendioak identifikatzeko duen eraginaren ebaluazioa. Elikadura-ingurunea hobetzeko helburuarekin, auzotarren ahotsak jaso eta Bilboko Udalak ezarritako politika publikoekin alderatu dira.

Batetik, herritarren gomendioen betetzea aldakorra izan da gaiaren arabera. Proposamenen aniztasunak adierazten du auzoaren ingurune fisiko eta sozioekonomikoak jorratzen duen ikuspegi zabala. Elikagaien kalitate/prezio erlazioari lotutako ekintzek betetze-maila handiagoa lortu zuten; baina ingurune fisikoari lotutakoek zailtasun handienak izan zituzten, nahiz eta berdegune eta jolas-eremuak sortzeak osasun orokorra hobetzen lagun dezakeen (MacMillan et al., 2018). Emaita horiek ekintzen bideragarritasunean dauden aldeak islatzen dituzte: egiturazko aldaketek inbertsio eta plangintza handiagoa behar dituzte, neurri ekonomiko edo hezkuntzakoekin alderatuta (Mah et al., 2019). Bizimoduei dagokienez, elikadura-ohitura osasungarriak sustatzeko ekimenak bultzatu dira, elikadura-praktika berriak sartzeko funtsezkoa izanik (de Ridder et al., 2017). Hala ere, elikagai ekologikoen eskuragarritasunean oztipoak daude oraindik, eta horrek herritarrek sentsibilizatzeko eta trebatzeko estrategiak indartu behar direla nabarmentzen du, erabaki informatuagoak har ditzaten.

Bestalde, Bilboko Udalaren I. Osasun Planak (2019-2023) herritarren proposamen batzuekin lerrokatutako ekintzak jaso bazituen ere, ezarpena ez zen homogenea izan. Kasu batzuetan, aurreikusitako ekintzak gauzatu gabe gelditu ziren, jarraipen-txostenean zehaztu gabeko arrazoiengatik. Horrek indartu egiten du ebaluazio-mekanismo zorrotzagoak eta gardenagoak ezartzearen garrantzia; diseinatutako estrategiak eraginkortasunez gauzatzen direla bermatzeko, gobernantza partekatuari buruzko azterlanetan proposatu dutenez (Gupta et al., 2023). *Photovoice*-k eragin nabarmena izan dezake politika publikoetan, komunitateak ekintzak egitera mugiarazten dituelako (Budig et al., 2018; Díez et al., 2018). Lan honetan, arazoak identifikatu eta proposamen zehatzak garatzea erraztu da. Gomendio guztiak inplementatu ez badira ere, prozesuak auzotarren eta agintarien arteko lankidetzaren ahalbidetu du (Gupta et al., 2023).

Guzti honek erakusten du *Photovoice*-k komunitatearen eta agintarien arteko konfiantza eta harremana hobetzeko ahalmena duela. Auzotarren errealitateak irudien bidez dokumentatzean, auzoaren beharrak identifikatzen laguntzeaz gain, politika inklusibo eta egokitzailak sustatzen ditu, politika publiko demokratikoagoak eta bidezkoagoak formulatu ahal izateko (Feindt eta Weiland, 2018). Prozesu honek herritarren ahalduztasuna indartzen du, gobernantza eta hiri-politiketako erabakietan ahots handiagoa izan dezaten. Horrek azpimarratzen du osasunaren arloko profesionalen, ikertzaileen eta komunitateen arteko lankidetzaren garrantzia, politika publikoen arloan lan eraginkorra errazte aldera (Israel et al., 2019; Lofton eta Grant, 2021).

Hala ere, horrelako esku-hartzeen benetako eragina neurtzea erronka da oraindik. *Photovoice*-k sortutako gizarte-erlaketaren ebaluazio mailak adierazle objektiboak zein subjektiboak behar ditu, ekintza zehatzak gauzatzetik hasi eta herritarrek beren ingurunean lortutako aldaketei buruz duten pertzepzioaraino (Díez Roux, 2001; Gupta et al., 2023). Beraz, funtsezkoa da etengabeko jarraipena egiteko estrategiak ezartzea, herritarren eskaerei erantzuna emateko eta ezarritako politiken iraunkortasuna eta eraginkortasuna baloratu ahal izateko.

4. Ondorioak

Ikerketa honek erakutsi du *Photovoice* tresba baliagarria dela tokiko beharrak identifikatzeko eta komunitatea mugiarazteko. Auzotarren ikuspegiak eta lehentasunak jasotzeko aukera eman du, herritarren ekarpenak bildu eta osasuna hobetu ahal izateko. Emaitzak politika publikoekin alderatzean, nahiz eta bizimoduekin eta ingurune ekonomikoari lotutako ekintzen inplementazioak egon diren, ingurune fisikoan egiturazko aldaketak gauzatzeko erronkak ikusi dira. Mahai gainean jarri dira herritarren ekarpenak politika publikoetan txertatzeko aurkitu daitezkeen aurrerapenak eta zailtasunak. Epe luzeko eraginkortasuna erakundeek herritarren proposamenak politika publiko zehatz eta jasangarri bihurtzeko duten gaitasunaren arabera izango da, tokiko agintari, ikertzaile eta komunitatearen arteko lankidetzaren beharrezkoa izanik.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Etorkizuneko azterketek ebaluatu beharko lukete partaidetza-teknikek bultzatutako esku-hartzeek bizi-kalitatean duten benetako eragina; baita gobernantza partekatuaren bidez herritar-gomendioak modu bidezkoagoan eta eraginkorragoan ezartzea. Ikerketek politika inklusiboak gauzatzeko oztopoak identifikatu eta erakundeen arteko lankidetzaren sendotzeko estrategiak proposa ditzakete, eta horrela, politika publikoek komunitatearen beharrak eta lehentasunak islatu eta epe luzeko ekintzen jasangarritasuna sustatu.

6. Erreferentziak

- Alidoost, S., Maleki, M., eta Pourasghari, H. (2021). Identifying drivers and factors affecting behavioral risk factors of noncommunicable diseases: A scoping review. *J. Educ. Health Promot.*, 10(1), 398. https://doi.org/10.4103/jehp.jehp_1379_20
- Bilal, U., Jones-Smith, D., Díez, J., Lawrence, R. S., Celentano, D. D., eta Franco, M. (2018). Neighborhood social and economic change and retail food environment change in Madrid (Spain): The heart healthy hoods study. *Health Place*, 51, 107-117. <https://doi.org/10.1016/j.healthplace.2018.03.004>
- Bilboko Udala. (2019). *Udalaren I. Osasun Plana (2019-2023)*. Osasuna eta Kontsumoa, Bilbao.eus. https://www.bilbao.eus/cs/Satellite?c=Page&cid=1279194829565&language=eu&pageid=1279194829565&pagename=Bilbaonet%2FPage%2FBIO_contenidoFinal
- Bivolsis, A., Cervigni, E., Trapp, G., Knuiman, M., Hopper, P., eta Ambrosini, G. L. (2018). Food environments and dietary intakes among adults: does the type of spatial exposure measurement matter? A systematic review. *Int. J. Health Geogr.*, 17, 19. <https://doi.org/10.1186/s12942-018-0139-7>
- Brambila-Macias, J., Shankar, B., Capacci, S., Mazzocchi, M., Perez-Cueto, F. J. A., Verbeke, W., eta Traill, W. B. (2011). Policy interventions to promote healthy eating: A review of what works, what does not, and what is promising. *Food Nutr.Bull.*, 32(4), 365-375. <https://doi.org/10.1177/156482651103200408>
- Budig, K., Díez, J., Conde, P., Sastre, M., Hernán, M., & Franco, M. (2018). Photovoice and empowerment: evaluating the transformative potential of a participatory action research project. *BMC Public Health*, 18(1), 432. <https://doi.org/10.1186/s12889-018-5335-7>
- Bugos, E., Frasso, R., FitzGerald, E., True, G., Adachi-Mejia, A. M., eta Cannuscio, C. (2014). Practical guidance and ethical considerations for studies using photo-elicitation interviews. *Prev. Chronic Dis.*, 11(10), 1-9. <https://doi.org/10.5888/pcd11.140216>
- Burns, D., Howard, J., eta Ospina, S. (2022). *The SAGE handbook of participatory research and inquiry, Volumes 1-2*. SAGE Publications. <https://doi.org/10.4135/9781529769432>
- Conde, P., Rivera-Navarro, J., Gutiérrez-Sastre, M., González-Salgado, I., Franco, M., eta Sandín Vázquez, M. (2024). Photovoice versus focus groups: a comparative study of qualitative health research techniques. *Gac. Sanit.*, 38, 102423. <https://doi.org/10.1016/j.gaceta.2024.102423>
- de Ridder, D., Kroese, F., Evers, C., Adriaanse, M., eta Gillebaart, M. (2017). Healthy diet: Health impact, prevalence, correlates, and interventions. *Psychol. Health*, 32(8), 907-941. <https://doi.org/10.1080/08870446.2017.1316849>
- Díez, J., Gullón, P., Sandín Vázquez, M., Álvarez, B., Gittelsohn, J., eta Franco, M. (2018). A Community-Driven Approach to generate Urban Policy Recommendations for Obesity Prevention. *Int. J. Environ. Res. Public Health*, 15(4), 635. <https://doi.org/10.3390/ijerph15040635>
- Diez Roux, A. V. (2001). Investigating neighborhood and area effects on health. *Ame. J. Public Health*, 99(11), 1783-1789. <https://doi.org/10.2105/AJPH.91.11.1783>
- EU Food Policy Coalition. (2021). *Entornos alimentarios y política alimentaria de la UE*. https://foodpolicycoalition.eu/wp-content/uploads/2022/09/Discovering-the-role-of-food-environments_ES_reducido-1.pdf
- Feindt, P. H., eta Weiland, S. (2018). Reflexive governance: exploring the concept and assessing its critical potential for sustainable development. Introduction to the special issue. *J. Environ. Policy Plan.*, 20(6), 661-674. <https://doi.org/10.1080/1523908X.2018.1532562>
- Fernández-Escobar, C., Díez, J., Martínez-García, A., Bilal, U., O'Flaherty, M., eta Franco, M. (2023). Food availability and affordability in a Mediterranean urban context: Associations by store type and area-

- level socio-economic status. *Public Health Nutr.*, 26(2), 446-454. <https://doi.org/10.1017/S1368980022002348>
- Franco, M., Bilal, U., eta Diez-Roux, A. V. (2015). Preventing non-communicable diseases through structural changes in urban environments. *J. Epidemiol. Community Health*, 69(6), 509-511. <https://doi.org/10.1136/jech-2014-203865>
- Gravina, L., Jauregi, A., Estebanez, A., Fernández-Aedo, I., Guenaga, N., Ballesteros-Peña, S., Díez, J., eta Franco, M. (2020). Residents' perceptions of their local food environment in socioeconomically diverse neighborhoods: A photovoice study. *Appetite*, 147, 104543. <https://doi.org/10.1016/j.appet.2019.104543>
- Gupta, P., Rouffy-Ly, B., Rohrer-Herold, K., Koch, K., Rao, N., Poulussen, C., Brearley, L., Abou-Taleb, H., eta Rajan, D. (2023). Assessing the interactions of people and policy-makers in social participation for health: an inventory of participatory governance measures from a rapid systematic literature review. *Int. J. Equity Health*, 22(1), 240. <https://doi.org/10.1186/s12939-023-01918-2>
- Harrington, H. J., eta Voehl, F. (2016). *The Innovation Tools Handbook, Volume 2*. CRC Press. <https://doi.org/10.1201/9781315367699>
- Israel, B., Schulz, A., Coombe, C., Parke, E., Reyes, A., Rowe, Z., eta Lichtenstein, R. (2019). Community-Based Participatory Research: An Approach to Research in the Urban Context. In S. Galea (Ed.), *Urban Health* (pp. 272-282). Oxford Academic. <https://doi.org/10.1093/oso/9780190915858.003.0029>
- Jackson, S. E., Llewellyn, C. H., eta Smith, L. (2020). The obesity epidemic - Nature via nurture: A narrative review of high-income countries. *SAGE Open Medicine*, 8, 2050312120918265. <https://doi.org/10.1177/2050312120918265>
- Lofton, S., eta Grant, A. K. (2021). Outcomes and Intentionality of Action Planning in Photovoice: A Literature Review. *Health Promot. Pract.*, 22(3), 318-337. <https://doi.org/10.1177/1524839920957427>
- MacMillan, F., George, E. S., Feng, X., Merom, D., Bennie, A., Cook, A., Sanders, T., Dwyer, G., Pang, B., Guagliano, J. M., Kolt, G. S., eta Astell-Burt, T. (2018). Do Natural Experiments of Changes in Neighborhood Built Environment Impact Physical Activity and Diet? A Systematic Review. *Int. J. Environ. Res. Public Health*, 15(2), 217. <https://doi.org/10.3390/ijerph15020217>
- Mah, C. L., Luongo, G., Hasdell, R., Taylor, N. G. A., eta Lo, B. K. (2019). A Systematic Review of the Effect of Retail Food Environment Interventions on Diet and Health with a Focus on the Enabling Role of Public Policies. *Curr. Nutr. Rep.*, 8(4), 411-428. <https://doi.org/10.1007/s13668-019-00295-z>
- Patton, M. Q. (2002). *Qualitative research and evaluation methods* (3rd ed.). SAGE Publications.
- San Juan, A., Fernández, I., Jauregi, A., Ayesta, I., Caballero, S., Fernández, J., eta Gravina L. (2023). Photovoice tresna elikadura-ingurunearen azterketa kualitatiborako. *EKAIA*, 44, 63-80. <https://doi.org/10.1387/ekaia.22804>
- Sanz, J. (2011). *La metodología cualitativa en la evaluación de políticas públicas*. Colección Ivàlua de guías prácticas sobre evaluación de políticas públicas. Ivàlua. http://www.dgfc.sepg.minhafa.gob.es/sitios/dgfc/eses/ipr/fcp1420/e/documents/guia8_evaluacion_cualitativa_ivalua.pdf
- van Diepen, R. J., van Erpecum, C. P. L., Tabak, D., van Zon, S. K. R., Bültmann, U., eta Smidt, N. (2023). Neighborhood socioeconomic differences in BMI: The role of fast-food outlets and physical activity facilities. *Obesity*, 31(2), 506-514. <https://doi.org/10.1002/oby.23617>
- Wang, C., eta Burris, M. A. (1997). Photovoice: Concept, Methodology, and Use for Participatory Needs Assessment. *Health Educ.Behav.*, 24(3), 369-387. <https://doi.org/10.1177/109019819702400309>
- Wang, C. C. (1999). Photovoice: A participatory action research strategy applied to women's health. *J. Womens Health*, 8(2), 185-192. <https://doi.org/10.1089/jwh.1999.8.185>
- Wuerzer, T. (2014). Urban Health. In A. C. Michalos (Ed.), *Encyclopedia of Quality of Life and Well-Being Research* (pp. 6835-6837). Springer.

7. Eskerrak eta oharrak

Lan hau 2024ko azaroan Euskal Herriko Unibertsitateko Erizaintza I Sailean defendatutako Osasun Publikoko tesi baten parte da. Proiektuak US16/35 finantzaketa eta Bilboko Auzo Elkarteen Federazioa, Bilboko Udala, Eusko Jaurlaritza eta Osakidetzaren laguntza jaso zuen.